



Zer-nolako eragina du zaratak komunikazioan?

MATERIALAK

- ◆ Sonometroa.
- ◆ Fitxaren fotokopiak.

Ahots tonu normalean mintzatzen garenean 55–65 dB-ko hots maila eragiten dugu 1 m-ra; tonua igoz gero, hots maila 65–75 dB-ra igotzen da; oihu eginez gero, 75–85 dB-ra iritsi ohi da.

Hartzaileak igorlearen potentziaren eta bien arteko distantziaren arabera jasotzen du soinua. Dena den, kontuan izan hondo-zarataren bat egoteak eragotzi egiten duela silaba batzuk

ulertzea; halaber, ulertzeko zailtasunak ahotsa igotzea dakar, bai eta horretarako esfortzua ere.

Ondoko taulan hondo-zarataren eta bi pertsonen arteko distantziaren arabera erabili behar den ahots maila azaltzen da. Adibidez, hondo-zarata 76 dB-koa bada, ahots tonu arruntean eta 0,15 metroko distantziara mintza gaitzke.

Adierazitako distantzia eta ahots mailetan elkarrizketa normal bat ahalbidetzen duten zarata mailak

SOLASKIDEEN ARTEKO DISTANTZIA (m)	INGURUKO ZARATA (dB)			
	ahots tonu normala	altu	oso altu	oihuka
0,15	76	82	88	94
0,3	70	76	82	88
0,6	64	70	76	82
0,9	60	66	72	78
1,2	58	64	70	76
1,5	56	62	68	74
1,8	54	60	66	72
3,6	48	54	60	66


Grafikoaren arabera:

- Inguruko zarata 88 dB-koa bada, zer ahots maila erabili behar da 0,15 metrotik mintzatzeko?
- Ahots tonu normalaz mintzatuz gero, zein da 3,6 metrotik elkar komunikatzea ahalbidetzen duen gehieneko zarata (dB-tan)?

Ikasgelako toki ezberdinetako zarata (presio akustikoaren maila) kalkulatzeko, sonometroa erabil dezakegu: arbetetik 1,2 metrora, arbetetik urruneneko tokian, ikasgelaren erdian, etab.

Neurri horiez baliatuz, marraztu ikasgelako plano eta kokatu bertan hots mailak.

Grafiko honetan inguruko zarata eta solaskideen arteko distantziaren arteko erlazioa ikus daiteke.



- Zenbateko distantziara entzun daiteke arbeletik tonu normalaz hitz egiten ari den pertsona baten ahotsa?
- Ikasgelako guztiek uler dezakete arbeletik esaten dena?
- Oro har, egokia al da ikasgeletako zarata maila?
- Horrela ez bada, nola murriz liteke?

Zarataren ondore psikosozialak


Inguruko zaratak oroimen, arreta, erreflexu eta adimen asaldurak eragin ditzake. Zarata jasaten duten pertsonak urduritasun handiagoa agertzen dute jasaten ez dutenek baino. Zaratak sortutako estresak digestio-aparatuari ere eragin diezaiokete eta, halaber, zarata luzaroan jasateak areagotu egiten du nekea. Dena den, kalte garrantzitsuena entzumen galera da —entzumen zolitasunetik gorrerirantz igaroz joan daiteke—.

Animaliez baliatuz egindako ikerketa batzuek agerian uzten dutenez, hirietan jasaten ditugun antzeko mailetako hots-estimuluek eraginda tentsio arterialean sumatzen diren nahasteek hipertentsio kronikoa sortzen dute.

Egunero jasaten den inguruko zaratak eragindako entzumen galera definitzeko, **Socioacusia** berba sortu da.

Gizakien artean gehien hedatu den ondorioa ondoeza da; zaratak eragindako molestien hedadura eta tamaina inkesten bidez zehazten da. Informazio horretatik abiatuz, honako grafikoa sortu da:

Hots mailaren eta ondoeza agertu duten biztanle portzentajearen arteko erlazioa



Hirietako hots maila baliokideak 65 eta 75 dB artekoak dira. Horren arabera, biztanleriaren erdiak ondoez bizi sentitzen duela esan daiteke.

Ikasgelan neurtutako zarata mailak grafikokoekin erkatuta, ehuneko zenbat senti daiteke ondoezik zarataren erruz?

Zaratak pertsoneri eragiten dizkien ondoreak iruzkintzean:

- Ikastaldeko inor al dago ondoezik?
- Zer jardueratan jasaten duzue zeuen osasuna honda dezakeen zarata mailaren bat?
- Ba al da bateratasunik grafikoko datuen eta ikasgelan jasotakoaren artean?
- Azkenik, talde txikitik, ikasgelan ematen dugun denbora osasungarriago bihurtzeko, zarataren aurkako zer neurri har daitezkeen erabakiko dugu.